IKASTOLAK

2026 neguko katalogoa

hitz eta jolas



ikastolak.eus

hitz eta jolas

HITZ ETA JOLAS ekimena gure hizkuntzaren
eta jolaserako grinaren arteko uztarketa da.
Jolasean ikasten dugu, eta hitzekin jolas egitea
gure hizkuntza bizirik mantentzeko
modu goxo eta eraginkorra da.

Katalogo honetan aurkituko dituzu ikastolen
balioetan oinarritutako jolas eta jarduera ugari.
Euskaraz pentsatu, euskaraz sentitu eta
euskaraz gozatzeko.



Aurkibidea

01 Argitxo Unibertsoa

02 Jolas eramangarriak

03 Lula bilduma

04 Kuku - Emozioak lantzen

05 Koaderno eta Ipuin jostagarriak

06 Liburuak

07 Komikiak

Argitxo unibertsoa

Argitxorekin, euskaraz jolasean!

Jolastu, sortu, margotu eta gozatu Argitxorekin! Txikienen irudimena pizteko eta euskarazko une dibertigarriak partekatzeko produktu sorta: panpina, margotzeko liburuak eta jolasak. Etxean euskaraz bizitzeko eta ikasteko modu polit bat!





ARGITXO PANPINA

Argitxoren panpina biguna. Lotara eramateko aproposa. Jolasean ibiltzeko lagun maitagarria.

27€

Kolorea eta irudimena:
Zatoz Argitxoren mundura!

Txikienek kolorearen eta irudimenaren bidez Argitxoren mundu magikoa ezagutzeko aukera dute liburuxka dibertigarri hauen bidez.

Zer lantzen du?

Sormena eta esperimentazioa, kolorearen eta irudimenaren bidez.





ARGITXO MARGOTZEN 2

Argitxo mozorroekin eta jolasean marrazkiak margotu ahal izango dituzu.

KOLOREZTATZEKO LIBURUXKA
9788412839999

+3 urte 5€

BERRIA



ARGITXO MARGOTZEN 3

Argitxo mozorroekin eta jolasean marrazkiak margotu ahal izango dituzu.

KOLOREZTATZEKO LIBURUXKA
9791399128772

+3 urte 5€



ARGITXO MARGOTZEN +6

Argitxo Euskal Herriko jai desberdinetan margotu ahal izango duzue.

KOLOREZTATZEKO LIBURUXKA
9791399128703

+6 urte 5€

Argitxo unibertsoa



ARGITXO PUZZLEAK

4 puzzle desberdin, haurraren adinari hobeto egokitzeko: 6 pieza, 9 pieza, 12 pieza eta 16 pieza.

PUZZLEAK
8430145110180

2-5 urte 21€



ARGITXO PAREAK ETA DOMINOA

Kartoizko pare-jokoa eta dominoa. Albo bietatik erabilgarria: aurkakoen dominoa eta kantitateena.

DOMINOA+BIKOTEAK
8430145140347

3-7 urte 25€



ARGITXO URTAROAK ETA HILAK

Urteko hilei eta urtaroei lotutako ekintza esanguratsuak islatzen dituen puzzlea.

PUZZLEA
8430145110197

+3 urte 22€



ARGITXO DINOSAUROEN MUNDUAN

Munduko mapa eta dinosauroak ezagutzeko puzzlea. 36 dinosauroren gida eta Argitxoren irudia, barruan dagoen horma-irudian.

PUZZLEA
8430145110173

+6 urte 22€



ARGITXO ETA GURE GORPUTZA

Gorputz-atalak, hezurrak eta organoak jolastuz, ezagutzeko.
30 zatiko 2 puzzle (albo bietatik).

PUZZLEA
8430145110166

4-8 urte 26€



URKATUA ARGITXOREKIN JOLASEAN

Urkatuan jolasteko 2 euskarri, 72 letrako 2 bilduma eta euskara-ingelesa hiztegia.
Euskaraz nahiz ingelesez jolas daiteke.

JOLASA
8430145150094

+6 urte 18€



Jolas eramangarriak



Edozein unetan eta lekutan jolasteko proposamenak!
Formatu txikian, etxean, bidaian edo aisialdiko tarteetan gozatzeko jolasak dira. Ondo pasatzeaz gain, irudimena, sormena eta trebetasun desberdinak lantzeko aukera eskaintzen dute, familian edo lagunartean.



ZAZPIAK BAT

Zazpiak bat karta jolasarekin Euskal Herria ezagutzeko aukera paregabea duzue, eta, bide batez, atxikimendua indartzeko ere.

KARTA JOKOA
9788412839920

+6 urte 22€



OIHANEKO KRISEILUA

6 piezako 4 puzzlez osaturiko istorioak dira. Pieza guztiak dira beraien artean konbinagarriak, eta honek, haurrei esperimentatzeko, puzzleak nahasteko eta kontakizun berriak sortzeko aukera ematen die.

IPUIN-PUZZLEA
8435226157726

+3 urte 16€





ASMATU BAIETZ

50eko karta-sortan era askotako jarduerak daude; 10 kartako sortan zailtasunak daude, dagokion jarduera betetzeko unean bete behar den agindua. Harea-erlojua.

ASMAKIZUNA
8430145140361

+7 urte 21€



BIHURRIKERIAK (+7 URTE)

Hiru jolas: Elkar ezagutzen dugu? Tabu, Max-Mix (mimika eta kantatu). 60 karta, 1-2-3 dadoa, eta harea-erlojua.

MIMIKA-KANTATU-TABU
8430145140354

+7 urte 18€



IGARRI MIGARRI (+7 URTE)

Hiru jolas, hiru hizkuntzatan: ahoz azaldu, mimika egin, eta marraztu (60 karta, dadoa, eta harea-erlojua).

MIMIKA-KANTATU-TABU
xxxxxxxxxxxxxxx

+7 urte 21€



ARGITXO KARTAK

72 karta eta 4 dado (ezaugarriekin, alde bakoitzean) Dadoek adierazten dituzten ezaugarri guztiak dituen karta bilatu eta ahalik eta azkarren antzeman behar da.

ASMAKIZUNA
8430145140378

+7 urte 22€

Lularen bilduma

Lula otsoa

LULA otsoaren abenturak bilduma berri batean datoz!

10 liburuz osatutako album-sorta hau euskaraz
sortua da. ULUren soinu-fikzioan oinarritutako testuak, Ikastolen Elkarteak egokitu ditu eta Aritz Truebak eman die forma irudien bitartez.



Zer lantzen da?

Euskalkien aberastasuna, aniztasuna, laguntasuna eta estereotipoak desegitea dira ipuinen ardatzak. Gainera, ipuin entzungarriak dira, entzunez ere gozatzeko modukoak.







Lularen bilduma



1. LULA OTSOA BAKARRIK

Lula otsoa galduta dabil. Bakar-bakarrik geratu da, familia eta lagunengandik urrun. Elur malutei begira liluratua, bere otso-taldetik urrundu da. Lula otsokume ausarta da ordea, eta laster negua pasatzeko babesleku berri baten bila hasiko da, horretarako basoaren bihotzean sartu behar badu ere.

IPUINA
9788412839951

+5 urte 16€







2. LULA OTSOA ADISKIDEAK

Lula otsoa jada ez dago galduta, baina ezin du etxetik atera: negua da eta elurra ari du, hotz handia egiten du! Zorionez ez dago bakarrik, adiskide berriak ditu. Bera bezala zuhaitz erraldoiaren txoko ezberdinetan bizi diren animaliak dira: Marta, Bizar eta Perru. Hasierak, lagun berriekin, ez dira beti errazak izaten ordea, ezta?

IPUINA
9788412839968

+5 urte 16€





BERRIA



3. LULA OTSOA - ESNATZEN

Neguko gau luzeetan, loak hartu aurretik, Lulak eta bere lagun berriek elkarri kontatutako ipuinetako bat da Battite saguzarrarena.
Battittek egunez lo eta gauez hegan egiten du, beste saguzar guztiek bezalaxe. Haiek ez bezala, ordea, Battittek amets bat du. Egunsentia ikusi nahi du.

IPUINA
9791399128710

+5 urte 16€





BERRIA



4. LULA OTSOA - AMETSETAN

Lula otsoa kezkatuta dago.
Egun osoan ez du Perru ikusi, eta haren bila hasiko da Jakintsu Zaharrean. Azkenean, adaburuan aurkituko du, urrutira begira. Perruk itsasoa du gogoan: oihaneko zuhaitzak baino handiagoa den ur ikaragarria eta liluragarria.

IPUINA
9791399128765

+5 urte 16€





KUKU emozio bilduma

ikaselkar
Hezkuntza dugu pasio

KUKU

EMOZIO BILDUMA
+5 URTE

Emozioen mundua ezagutzeko eta emozioak identifikatzen, adierazten eta ulertzen ikasteko bilduma. Sei oinarrizko emozio ditu abiapuntu: **poza, beldurra, tristura, haserrea, sorpresa eta nazka.** **Album ilustratuek, horma-irudiek eta memoria-jolasak** osatzen dute bilduma, istorioen eta jolasaren bidez emozioak lantzeko eta haiei buruz hitz egiteko. Etxean txikienekin partekatzeko eta euskarazko ahozkotasuna sustatzeko baliabideak.

ALBUMAK

Beldurra, haserrea, nazka, poza, sorpresa eta tristura, oinarrizko sei emozioak ezagutzeko, kudeatzeko eta besteenak hobeto ezagutzeko bilduma da Kuku!



SORPRESA!

Manexek ezusteko berri bat jasoko du, eta horren hainbat sorpresa eta sentsazio berri ekarriko dizkio.

LIBURUA
9788417538972

16.55€



HASERREA

Mireiak inurriak gutxietsi eta bortizki zanpatu ditu. Baina inurrie ere, txikiak eta ia ikusezinak izateagatik, sufritzen dute, eta haserretzen dira.

LIBURUA
9788417538989

16.55€



IRRIMOLA

Poza biribila da, barruan daramagun zurrunbiloa. Leunki ateratzen da maiz. Beste batzuetan, ordea, xirimolaka kanporatzen dugu, irri eta algaraka.

LIBURUA
9788418410338

21.50€



NAZKATASUNA

Zer da nazka? Noiz sentitzen dugu? Gauza berdinek ematen al digute nazka? Denok sentitzen al dugu berdin?

LIBURUA
9788418410352

16.55€



PUTZ EGIN ETA IKUSIKO DUZU

“Beldurra zure barnean dago, birikak eta sabelaren artean”, esaten zidan amonak. “Hortik atera behar duzu nolakoa den ikusi ahal izateko”.

LIBURUA
9788418410369

16.55€



TRISTURA

Nahigabeak har dezake edozeinen gogoa oharkabean. Baina badago norbait hemen lagunari bizipozaz eta alaitasunaz hitz egiteko.

LIBURUA
9788418410345

16.55€

KUKU emozio bilduma

ikaselkar
Hezkuntza dugu pasio

HORMA-IRUDIAK

Oinarrizko emozioak ezagutzeko bina ilustrazio topatuko dituzu horma-irudi bakoitzean. Elkarrizketarako, egoera eta gertakizunak partekatzeko, baita emozioak eta sentimenduak bizitzeko eta adierazteko ere erabilgarriak dira.

84×21cm-ko 2 horma irudi.

17.35€ **bakoitza**



FIRIN-FARANA KALEJIRAN
Poza



OINAK LURREAN PIL-PILIEAN
Tristura



TIKILI-TOKOLO ZIRKUAN
Beldurra



PLASTA-PLASTA, PARRASTA!
Nazka



BAT-BATEAN, ZAST!
Sorpresa



TXISPUN BURRUN!

Haserrea

JOLASA



EMOZIOEN MEMORIA-JOKOA
Oinarrizko 6 emozioen aurpegi adierazleak ardatz hartuta, eta horien 3 aldaera eta intentsitate-maila bereiziz, forma biribila duen memoria-jokoa (18 fitxa-pare).

19.65€



EMOZIOEN DOMINO-JOKOA
Oinarrizko 6 emozioen aurpegi adierazleak ardatz hartuta, erlauntza forma duen domino-jokoa (28fitxa).

19.65€

Hizkuntzarekin jolasteko koadernoak

ikaselkar
Hezkuntza dugu pasio

Euskararekin jolasean!

Hitzekin esperimentatzeko, hiztegia aberasteko eta euskararen aukerak deskubritzeko proposamenak. Jolasa eta sormena uztartuz, hizkuntzarekin gozatzeko eta ikasteko baliabideak.







1.000 HITZ... ETA BAT GEHIAGO

+7 URTE

Letrak, silabak, hitzak, esaldiak. Hizkuntzaren unibertsoa infinitoa da! Hezkuntzarekin jolasteko koaderno hau osatzen lagundu nahi?

LIBURUA
9788418978258

18.03€



HITZULIPURDIKA

+9 URTE

Aho-korapiloak, poema bitxiak, izen xelebreak, ohar barregarriak, testu txoroak, hitz aldrebesak... Hizkuntza hitzez beteta dago, eta, horiek hankaz gora jarriz gero, oso dibertigarria izan daiteke. Hizkuntzarekin HITZULIPURDIKA ibili nahi?

LIBURUA
9788418978661

18.04€



Ipuin eta Koaderno Jostagarriak

ikaselkar
Hezkuntza dugu pasio

Jolasteko, pentsatzeko eta sormena lantzeko koadernoak. Erronka, jarduera eta proposamen dibertigarrien bidez, jakin-mina pizteko, trebetasun desberdinak lantzeko eta ikaskuntzaz gozatzeko aukera eskaintzen dute.



KILI KILI
OTSOKO GOSE DA

4-6 URTE

KILI KILI ipuin jostagarriak 4-6 urte bitarteko haurrentzako koadernoak dira. Jolaserako ipuinak dira, edo, beste era batera esanda, ipuin baten harian giroturiko jolas eta denbora-pasak.

LIBURUA
9788418978623

14.50€



KILI KILI
XAGU ETA KATU BASERRIAN

4-6 URTE

KILI KILI ipuin jostagarriak 4-6 urte bitarteko haurrentzako koadernoak dira. Jolaserako ipuinak dira, edo, beste era batera esanda, ipuin baten harian giroturiko jolas eta denbora-pasak.

LIBURUA
9788418978630

14.50€

6-12 urte bitarteko haurrentzako jolasteko eta ikasteko 6 koaderno. Ikasturtean zehar landutako gaietan sakontzeko eta ezagutzak modu ludikoan garatzeko aukera eskaintzen dute, matematika, naturaren eta gizartearen zientziak eta hizkuntza ardatz hartuta. Betiere, euskara eta Euskal Herriko testuingurua oinarri.



KILIMAK 1
KOADERNO JOSTAGARRIAK
6-7 URTE

Sei atal tematikotan banatutako koadernoa, misterioak argitzeko eta erronkak gainditzeko proposamenez betea. Piratak, zirkuak, mitologia, urtaroak, ibilgailuak eta jolasak izango dira abentura honetako protagonistak. Euskaraz jolasteko, sortzeko eta ikasteko aukera, QR kode bidezko ikus-entzunezko baliabideekin.

LIBURUA
9788418978517

14.50€



KILIMAK 2
KOADERNO JOSTAGARRIAK
7-8 URTE

Sei atal tematikotan banatutako koadernoa, misterioak argitzeko eta erronkak gainditzeko proposamenez betea. Animaliak, asmakizunak, musika, koloreak, elikadura osasungarria eta jolasak izango dira abentura honetako protagonistak. Euskal Herriko txokoak ezagutzeko, eskulanak egiteko eta euskaraz jolasteko aukera, QR kode bidezko ikus-entzunezko baliabideekin.

LIBURUA
9788418978524

14.50€



KILIMAK 3
KOADERNO JOSTAGARRIAK
8-9 URTE

Sei atal tematikotan banatutako koadernoa, misterioak argitzeko eta erronkak gainditzeko abenturaz betea. Unibertsoa, natura, artea, gozogintza, superheroiak eta itsas hondoa izango dira abentura honetako protagonistak. Rol desberdinak hartuz, Euskal Herriko txokoak ezagutzeko, eskulanak egiteko eta euskaraz jolastuz ikasteko aukera, QR kode bidezko ikus-entzunezko baliabideekin.

LIBURUA
9788418978548

14.50€

Ipuin eta Koaderno Jostagarriak

ikaselkar
Hezkuntza dugu pasio



KILIMAK 4
KOADERNO JOSTAGARRIAK
9-10 URTE

Sei atal tematikotan banatutako koadernoa, misterioak argitzeko eta erronkak gainditzeko abenturaz betea. Bidaiak, zinema, musika, kirola, klima-aldaketa eta norberaren zaintza izango dira koaderno honetako protagonistak. Euskal Herriko txokoak ezagutzeko, sormena lantzeko eta euskaraz jolastuz ikasteko aukera, QR kode bidezko ikus-entzunezko baliabideekin.

LIBURUA
9788418978555

14.50€



KILIMAK 5
KOADERNO JOSTAGARRIAK
10-11 URTE

Lau atal tematikotan banatutako koadernoa, komikiak, elkarrizketak eta jarduera ugari uztartzen dituena. Gorputzaren ezagutza, animaliekiko harremana, itsasoa eta surfa, eta espazioa izango ditu ardatz. Komikiak sortzeko, esperimentatzeko, jolasteko eta gaietan sakontzeko proposamenak biltzen ditu, QR kode bidezko ikus-entzunezko baliabideekin eta irakurgai-gomendioekin.

LIBURUA
9788418978562

14.50€



KILIMAK 6
KOADERNO JOSTAGARRIAK
11-12 URTE

Lau atal tematikotan banatutako koadernoa, komikiak, elkarrizketak eta jarduera ugari uztartzen dituena. Mahai- eta rol-jokoak, magia, historia eta kontsumo jasangarria izango ditu ardatz. Komikiak sortzeko, esperimentatzeko, jolasteko eta gaietan sakontzeko proposamenak biltzen ditu, QR kode bidezko ikus-entzunezko baliabideekin eta irakurgai-gomendioekin.

LIBURUA
9788418978579

14.50€



GURE ZIRKUA

+8 URTE

Koaderno honetan bidaia magiko batean abiatuko zara, herriz herri, zirkuko artisten bila. Bidean, artistak ezagutuko dituzu, eta hainbat akrobazia egingo duzu: denbora-pasak, zenbaki- eta letra-jolasak, asmakizunak, marrazkiak, eskulanak eta beste hamaika jarduera biltzen ditu, denak ere Gure Zirkuaren bueltan, eta euskaraz.

LIBURUA
9788418978586

14.50€



Liburuak

ikaselkar
Hezkuntza dugu pasio

+5 URTE



HIZTEGI JOLASTIA

Alfabetoko letra bakoitzak du bere poema eta marrazkia. Jolaserako hiztegia da, eta jolas eginez irakurtzen trebatzeko ere bai.

LIBURUA
9788483319161

13.00€



BADAUZKAT NIRE ZULOTXOAN

Negua pasatzeko janaria biltzen hasi da urtxintxa. Istorioan zehar etengabe presente egonda ere, irakurlea sorpresaz hartuko duen beste protagonista bat bada...

LIBURUA
9788417538941

14.55€



NIRE GORPUTZEAN BIZI NAIZ

Poema, asmakizun eta igarkizun sorta da. Liburuak jolas egiteko gonbita luzatzen die haurrei.

LIBURUA
9788417538958

10.00€



GALDU DENA, AZALDU DADILA!

Hirian desagertu diren Olaiaren ama, Ekhiren aita, Lukaren amonak eta Mlaren osaba.
A zer despistatu-kuadrilla! Eta orain zer? Nondik hasi bila?

LIBURUA
9788417538965

14.55€



LOINATZEN LOA

Ondoezin esnatu denez, Loinatz etxean gelditu da, ohean goxo-goxo. Etxeko tramankuluekk, ordea, hankaz gora jarriko dute Loinatze loa.

LIBURUA
9788418410307

14.55€



FAMILIA XELEBREA

Familia guztiak dira xelebreak. Baina xelebreetan xelebreena Erramun Babarrun, Mariaje Potaje, Serafin Mokofin eta Arantxa Balantxarena.

LIBURUA
9788418410314

10.00€

+6 URTE



LETREN JOLASLEKUAN

Hodeiri letrak kostatu egiten zaizkio; ez dira bere lagunak. Ametsek letren jolaslekura eramango du eta, jolasaren bidez, letrekin adiskidetzen lagunduko dio.

LIBURUA
9788418410390

10.00€



HANKA, MOKO ETA BUZTAN. ANIMALIEKIN DANTZAN.

Asmazan, asmazak... Zer ote dago liburu honen baitan? Animalia bitxi ugari, hanka, moko eta buztan...

LIBURUA
9788418410406

12.30€

Liburuak

ikaselkar
Hezkuntza dugu pasio



TIK, BAKARRIK. TAK, IKARAK.

Bat-batean, amona gaixotu egin dela eta, etxean bakarrik geratu dira bi anai-arreba. Eta, denborak aurrera egin ahala, beldurra areagotu egingo zaie.

LIBURUA
9788418410413

10.00€



ITSAS HAIZEA DABIL

Arraitarrak senide askoko familia dira: abeslariak, akrobatak, gozogileak, jostunak... denetik dago etxean. A zer zalaparta familia horretakoa!

LIBURUA
9788418410420

12.30€



ITZAL ITZELA

Paule hondartzan dagoelarik, hondar azpian zerbait mugitzen sumatu duen arte. Geldi geratu da, harrituta, zer egin ez dakiela. Amonaren esaeraz gogoratu da orduan: beldurrari aurre.

LIBURUA
9788418410437

14.55€



ZARATA DO MAIORREAN

Jakelin oso irudimentsua da. Egun batean, ustekabeko aurkikuntza egingo du: bere familia ez da bere benetako familia, beste planeta batetik dator. Sekulakoak egingo ditu bere jatorrizko etxera itzultzeko.

LIBURUA
9788418978234

14.55€



EUSKAL HERRIETAKO IPUIN HARRIGARRIAK

Honelako ipuinek adierazten diote haurrari bizitzan makarrik moldatzeko trebeziak landu behar dituela; egunen batean ez du gurasorik izango, edo gurasoek ezin izango diote lagundu...

LIBURUA
9788418978241

13.35€



JAKELINEN EGUNEROKOA

Jakelin oso irudimentsua da. Egun batean, ustekabeko aurkikuntza egingo du: bere familia ez da bere benetako familia, beste planeta batetik dator. Sekulakoak egingo ditu bere jatorrizko etxera itzultzeko.

LIBURUA
9788418978234

12.50€

Xabiroi

BERRIA



HAUR BESOETAKOA

Haurra izan nahi du haurrak, bere izateari eutsi eta bestelako lanen zama Aimen bizkar utzi. Hala ere, denak ez dira iritzi berekoak. Horien artean nerabeak dira okerrenak.

Nerabeek gerra deklaratuko diote Haur Besoetakoari, eta bai amarruan erori ere. Indarraren ordez burua erabili behar dela diotso Lo-Li-Tak. Baina bere burua non kokatu ez dakienak nola erabiliko du burua? Laguntza eskatu beharko ote du? Haur Besoetakoak laguntza eskatu?

Inoren kontra borrokatu aurretik norberak jakin behar du nor den. Eta orduan erabaki ahal izango du, bakarrik orduan, “izan ala ez izan”.

KOMIKIA
9791399128727

17€





IRATI - SAIAK

Mitologia eta abentura uztartzen dituen istorio zirraragarria.

KOMIKIA
9788494151996

12€



PIZTIA OTZANAK

Genero beltzekoa, intriga eta misterioa ziurtatuta daude.

KOMIKIA
8437006901208

12€



TELEATOI

Zientzia-fikziozko abentura, umore galaktikoarekin.

KOMIKIA
8437006901406

12€



ANUBIS 3.0 ARIMAREN PISATZEA

Egiptoko mitologiaren berrirakurketa futurista, intrigaz betetako istorio batean.

KOMIKIA
9788494019746

12€

Komikiak



ZEBRA EFEKTUA

Bi hiltzaile enkargu bat burutzear dira New Orleans-en, baina bezperan metamorfosi arraro bat gertatuko da. Intriga eta fantasia.

KOMIKIA
9788494151965

12€



HAUR BESOETAKOA LITXARRERIEN JAUNA

Gurearen oihartzunak dituen haurren unibertso batean, Haur Besoetakoak litxarrerien mafiaren erabateko kontrola dauka, edo hala uste du berak behintzat...

KOMIKIA
9788494281679

13€



KORTSARIOEN OSTATUA

Maiz gertatu bezala, kortsario izatea ez da lehen aukera, bakarra baizik.

KOMIKIA
9788494353147

13€



MUSEO BILDUMA

Museoak leku guztietan ugaldu diren sasoian, hauen gaineko begirada kritikoa da Museo Bilduma, eta, oroz gain, sormenari eskainitako gorazarrea, zientzia fikzioaren klasikoei egindako keinu ttipiz betea.

KOMIKIA
9788494607219

13€



SANTA FAMILIA

Familia da emanda datorren gauza bakarra. Ez lagunak, ez bizimodua, ez ingurua, familia baizik. Norak, ordea, arau horri ihes egingo dio. Sekretu bat gordetzen du. Bere sekretua.

KOMIKIA
9788494607264

14€



HAUR BESOETAKOA PARISTIK DATORREN ARTISTA

Ihes egitea zaila bada, are zailagoa itzultzea. Horretan dabil HB. Baina oraingo honetan Beste Aldetik dator mehatxua: AIMAk saldoka datoz ihesi haurren mundura.

KOMIKIA
9788494607288

15€



AMETS ALOKATUAK

Etorkizun hurbil batean, jendeak bere gau horretako ametsak alokatuko ditu, orain hoteleko gela bat hartzen duenak bezala...

KOMIKIA
9788494607240

15€



BASOLATIK BERRI ONIK EZ

Ez berri gehiagorik ekarri, mezulari, jakin behar baitut neure begiez. Basolan zer berri den...

KOMIKIA
9788412223835

15€

KOMIKIAK



ARRANOTXU EUSKAL GERLARI MITIKOA

Ados, superheroiengana joko luke jenderik gehienak arazo korapilatsurik balu, baina noren atea jotzen dute gero superheroi horiek, kozinatzen hasi, eta gatzik gabe geratu direla konturatzean?

KOMIKIA
9788412406757

15€



SASI ARTEAN ELGETA

Elgetaren bizitza, musika musikoen aurka, Elgetaren bizitza, 1931-36ko errepublika, Elgetaren bizitza, maitasun fantastikoa, Elgetaren bizitza, gerra eta kartzela, Elgetaren bizitza, 27 urteko diktadura, Elgetaren bizitza, bakardadea nahiago...

KOMIKIA
9788412406764

15€



HAUR BESOETAKOA ITSASOAN URAK HANDI

Aimek Haurren Hiria hankapean hartu, eta ihes egin behar izan dute HBk eta Lo-Li-tak. Itsasora egin dute jauzi, haragoko ertzen batean askatasuna eta bizimodu hobea aurkituko dituztelakoan.

KOMIKIA
9788412564952

15€



SURFLARIA

Amaiak telefono dei bat jaso du: Hamar urte igaro ostean hiltzat jo dute Eki, itsasoan desagertu zen laguna eta maitalea. Haren arrastoaren atzetik abiatuko da Amaia.

KOMIKIA
9788412717891

16€



BOTERE HANDI BATEK

Super-gizakiak euskal gatazkan nahastu zirenetik gauzek okerrera egin dute gurean. Fisio, Fusio, Depresore, Lady Toledo, Barrenero, Atari, Zatiki, Porlana eta Makadama, besteak beste, irtenbide bat aurkitzen saiatuko dira, nor bere modura, gure historia hurbilaren labirintoan zehar.

KOMIKIA
9788412839913

17€



MAURIZIA BIZIMINAREN HOTSA

Bizitza xumea izan zuen Mauriziak, eta xumetasun horretatik bihurtu zen ezinbesteko erreferentzia, naturaltasunaren etsenplu eta, finean, euskal kulturaren ikono. Mauriziaren doinuek erraietan egiten dute dardara.

KOMIKIA
9788412839944

17€

BERRIA



HAUR BESOETAKOA IZAN ALA EZ IZAN

Super-gizakiak euskal gatazkan nahastu zirenetik gauzek okerrera egin dute gurean. Fisio, Fusio, Depresore, Lady Toledo, Barrenero, Atari, Zatiki, Porlana eta Makadama, besteak beste, irtenbide bat aurkitzen saiatuko dira, nor bere modura, gure historia hurbilaren labirintoan zehar.

KOMIKIA
9791399128727

15€



2026
neguko katalogoa

ikaselkar
Hezkuntza dugu pasio

IKASTOLAK